



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN
19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LAGUNTZAREKIN :

araba álava
foru aldundia diputación foral

Vital
FUNDAZIOA

LABORAL
kutxa

MAZOKA, PUBLIKO GUZTIENTZAKO ARTE AZOKA, NON SORMENA GIZAKIONA DEN

- MAZOKAk bere X. urteurrena ospatuko du abenduaren 19, 20 eta 21ean, **pertsona sortzaileen talentua, irudimena, originaltasuna eta ahalegina babestuz.**
- Jardueraz betetako egitarauan, azpimarratzekoa da **“Arabako ilustrazioa: 2015-2025 mazokalariak”** erakusketa, zeina abenduaren 11n inauguratuko baita Kordoi Etxean.
- Tailerrek, bertsoek, itzalezko antzerki emanaldiek, edo dagoeneko klasikoak diren ilustramatoiak eta aholkularitza grafikoak osatzen dute jarduera paraleloen egitaraua.
- **Ane Arzelus** mazokalari ohiak sinatu du aurtengo edizioko kartela, zeinak, sormenarekin lotutako horren hiperkomertzializazioaren aurrean, giza irudia erdigunera ekarri nahi baitu berriro.



SORMENA: TXINPARTA GIZAKIONA DA

Aurten, 2025ean, **MAZOKA Marrazki Azokak 10 urte bete ditu** eta ospatzeko arrazoia dela iruditu zaigu, guretzat ez ezik, Gasteizentzat ere, sormenaren eta hura posible egiten duten artisten aldeko apustu gisa hasi zen hori **sendotu eta marrazkigintzaren erreferentziazko festa** bihurtu delako; izan ere, urtero, milaka dira Estatuko hainbat lekutatik etortzen diren bisitariak.

Aurten ere, Mazoka pertsona sortzaileen talentua, irudimena, originaltasuna eta ahalegina babesten dituen jaialdi bat izango da. Sormenaren txinparta gizakion ezaugarri berezienetako bat da, eta haren aberastasuna, aniztasuna eta potentzialtasuna ordezkaezinak dira. Horren erakusgarri dira azokan euren standetan, nor bere estilo eta teknika oso anitzekin, egongo diren mazokalariak.

Montehermoso Kulturunea festarako prestatuko da berriro ere, aurtengo edizioan inoiz baino arrazoi gehiagorekin, gainera, abenduaren 19tik 21era bitarteko asteburuan, Arzelusen ilustrazioarekin sortutako identitate bisualari esker. Arzelusek publikoaren eta euren artea —serie mugatuak edo produktu ilustratuak— saltzen egongo diren egileen artean sortzen den zuzeneko tratu horretan jarri du arreta, azokan ez baitago bitartekorik, eta salmenta zuzenean gertatzen baita:

“

Sormenarekin lotutako horren hiperkomertzializazioaren aurrean, eta enpresa handiek ogibide hau AA bezalako tresnak erabiltza inbaditu nahi dutela ikusita, Mazokaren aurtengo edizioko kartelak giza irudia erdigunera ekarri nahi du berriro ere. Izan ere, ilustrazioaren diziplina ordezkaezina den zerbaitetik elikatzen du: horretan diharduen pertsona bakoitzak ematen duen begirada bakanak. Umore kutsu batekin, irudi honek topaketa eta pieza ilustratuen erosketa ere ospatu nahi du, trapitxeo eta errebelia ekintza gisa ia.

”



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

ARABAKO GAUR EGUNGO ILUSTRAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUSKETA BAT

Azoka abian jartzeko, edo garra pizteko – izan ere, X. edizioaren leloa "SORMENA: TXINPARTA GIZAKIONA DA" denez—, ostegunean, abenduaren 11n, honako **ERAKUSKETAREN** inaugurazioa izango dugu: **"ARABAKO ILUSTRAZIOA: 2015-2025 mazokalariak"**. MAZOKA hedatu egingo da eta, helburu horrekin, Erdi Aroko almendrako beste espazio historiko eta ikonikoetako bat hartuko du: Vital Fundazioaren Kordoi Etxea. Izan ere, 2015az geroztik, 70 arabar baino gehiagok hartu dute parte azokan, baina jakin badakigu bertako talentuaren asmamena eta originaltasuna kopuru hori baino askoz handiagoak direla.

Erakusketa Mazokaren azken egunera arte egongo da zabalik, abenduaren 21era, igandera arte, eta bertako talentuari egingo diogu omenaldia, arreta harengan jarrita. Erakusketan, Mazokaren 10 edizioetako batean hautatuak izan ziren Arabako 60 artista baino gehiagoren obra ilustratuak ikusi ahal izango ditugu, baita Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko beste kide batzuenak ere.

Horien artean egongo dira nazioartean aintzatespena eta sariak jaso dituzten ilustratzaileak, hala nola Mercedes de Bellard, Zigor Samaniego, Yolanda Mosquera edo Saioa Aginako.

MARRAZKI AZOKA PROTAGONISTA GISA

Mazoka, batez ere, **AZOKA bat da (sarrera doakoa da), non era guztietako aplikazioetan egindako ilustrazioak eskuratzeko aukera izango dugun: aplikazio editorialak, ehunak, papera, zeramika, 3D, brodatuak, lanparak, jostailuak, tatooak, serigrafia edo linografia serie mugatuak, etab.** Ilustrazioaren arloko 30 profesionalen lanak egongo dira ikusgai, estilo oso desberdinekin egindakoak eta aniztasun handikoak (haurrentzako edo kawai ilustrazioetatik hasi eta marrazki ilunagoetaraino, urbanoak, blackworka, artisau-estampazioak, graffitiak edo poesia bisuala barne), baita ikasle bekadun batenak ere; guztiak ehunka eskaeren artean hautatuak dira.

Euskaditik etorriko dira, baita Andaluzia, Aragoi, Valentzia, Murtzia, Gaztela eta León, Bartzelona, Madril, Murtzia, Asturias, Galizia, Dominikar Errepublikak, Venezuela eta Italiatik ere, eta euren arteaz beteko dute Montehermosoko Ur Biltegia Gabonen aurreko asteburuan: beren standak pertsonalki artatuko dituzte, beren obra eta produktuak azalduko dituzte eta zuzenean sormen erakustaldiak eskainiko dituzte.

Arabako Foru Aldundiarekin batera, IV. Artisten Katalogoaren paperezko edizio oso berezia aurkezten dugu, X. edizioko mazokalarien lana eta ibilbidea jasotzen duena. Argitalpen informatibo eta bildumagarria da, eta ilustrazioaren sektorean oso aintzatespen garrantzitsutzat hartzeko ospea hartu du.



MARRAZKI AZOKA
MERCADO
DE DIBUJO
E ILUSTRACIÓN

19-20-21
ABENDUA-DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2025

Azoka ostiralean inauguratuko da, hilaren 19an, arratsaldeko 18:00etan, Ur Biltegian. Inaugurazioan, bertso eta txalaparta emanaldiez gozatu ahal izango dugu azokaren ateak zabaltzeko, baita dagoeneko tradizionala den Irrintziaz ere. Gaur egun, ospakizunetako alaitasunaren eta zirrararen sinonimoa da, baina ilustrazioarekin partekatzen duena zera da —euskal artzainen artean jatorrian zuen funtzioak—, biak KOMUNIKATZEKO eta garapen kulturalerako bi teknika edo bitarteko direla, bata soinu bidezkoa eta bestea grafikoa. Eta aurten, inoiz baino gehiago, ez ditugu gure sustraiak ahaztu behar, ezta gizakiok sortu ahal izan ditugun hizkuntza guztiak ere, marrazki edo oihu sinpleagoetatik hasi eta pentsamenduak, sentimenduak eta ideiak adierazteko aukera ematen diguten hizkuntza abstraktu edo sinboliko konplexuetaraino. y atenderán personalmente sus stands, explicando su obra y productos y con creatividad en directo.

Gurekin izango dira berriz tailerrak, ikuskizunak, marrazkitekak, ilustramatoia eta aholkularitza grafikoa.

Publikoak **opari paregabeak erosi ahal izango ditu, artea edozein patrikarekin eskuratzeko moduan** egongo baita salgai eta, horrez gain, jarduera paraleloz betetako egitarauaz gozatu ahal izango du. Jarduera gehienak X. urteurrena ospatzeko bat egiten duten mazokolari ohien eskutik izango dira: familiei zuzendutako **marrazki eta mugimendu tailerrak, ilustratutako egunkari edo exlibris tailerrak, musika, bertsoak, txalaparta eta irrintzilariak, itzalen eta argien antzerkia, hitzaldiak** fanzineak erreibindikaziorako arma gisa erabiltzeari buruz eta ilustrazioaren historiari buruz, mahai inguruak, aurkezpenak, marrazkitekak, aholkularitza grafikoa, ilustramatoia, komiki, fanzine eta album ilustratuen aurkezpenak, edo hainbat teknikaren erakustaldiak (xilografiarenak, esaterako), bisita gidatuak eta hiru erakusketa, trazuz, kolorez eta ilustrazioz beteak; eta ilustramatoia, marrazkitekak eta aholkularitza grafikoen etengabeko jarduerak. Eta hori guztia publiko guztientzat izango da, ez da beharrezkoa marrazten jakitea, harritzeko eta irudimenarekin gozatzeko gogoia izatea besterik ez da behar.

Erakusketak eta mahai inguruak karteiei eta AAri buruz

Arabako Ilustrazioa izeneko erakusketaz gain, Mazoka egingo den asteburuan zehar, Montehermoson bertan, kartelen beste bi erakusketez gozatzeko aukera egongo da: horietako lehena **Autoras de Cómic taldearen "STOP IA GEN"** izango da, zeinetan sektoreko sinadura onenek parte hartuko duten eta autoras de cómic-en 90 kartel izango dituen, besteak beste, Cristina Durán edo Ana Penyas sari nazionalenak, eta Ipar Amerikako merkatuan lan egiten duten Carmen Carnero edo Natacha Bustos handienak. Bigarrenak profesionalek ilustratutako kartelen balioa jartzen du agerian, eta ibilbide bat egiten du **Mazokaren 10 urteetan egindako karteletan eta horien egileetan** zehar.